

ARRABITA / VIOLON

Maddi ANDUEZA



Gizakiek betidanik sentimen ezberdinak adieraztea eta besteekin elkarri eragiteko beharra sentitu du, natura kopiatzea ere, gorputzaren bidez lehenik, gero tresnak sortuz, hizkuntza unibertsal honetan elkarbanatuz : musika da.

Bibolina hautatu nuen zazpi urte nituelarik, aspaldian, euskaldunen plazetan, garrantzi haundiko tresna zela jakin gabe.

Tresna hau ikastea erabakitzen duen pertsona bakoitzarekiko nere bete beharra bibolinaren bidez espresatzen ahal izatea da, edozein lekuan, edonorrekin...

Pazientzia eta motibazio haundia eskatzen du bibolinak, ttanttaka ttanttaka emaitz baikorrak lortuz.

Nere nahia, persona bakoitzaren izaera eta beharrak errespetatzen saiatzea da, bakoitza bere erritmoan edozein musika mota jotzeko teknika eta trebetasuna berenganatuz.

Kurtsoetan ikasleekin batean jotzen dut askotan, ahal den fiteen elkarrizketa batean bezala, soinu ezberdinetara ohituratzeko, eta erritmoan errexago murgiltzeko. Hasieran gauza sinpleekin eta progresiboki zailtasunak gehituz.

Beste tresna ezberdinekin batean jotzea ahal den fiteen garrantzitsua iruditzen zait (pianojoleekin edo ta talde txikiekin adibidez), eta etxean akonpainamendu gisa « cd » batekin lan egitea proposatzen dut ere.

Bibolina bizi osoko lagun on bat bezala ikusten dut.